

KANBO HERRIA

Pirinio Atlantikoetako departamendua

ERABAKIEN AKTA

2021eko UZTAILAREN 5eko

HERRI BILTZARRA

Bi mila eta hogeita bateko uztailaren bostean biltzera deiturik, herriko biltzarra Christian DEVÈZE, jaun auzapezaren lehendakaritzapean bildu da. Biltzarra arratseko 7etan hasi da.

Hor ziren: Christian Devèze auzapeza, Eliane Aizpuru, Jean-Noël Magis, Yolande Huguenard, Didier Irastorza, Marie Aristizabal, Robert Poulou, Christiane Hargain-Despéries, Vincent Goytino, ordeak, Véronique Cadepond-Larronde, Peio Etcheleku (20:00tik goiti), Corinne Othatcegy (19:50 arte), Nicole Amestoy, Jean-Jacques Lassus, Isabelle Ayerbe, Jean-François Lacosta, Maud Gastigard, Sébastien Carre, Carmen Gonzalez, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Lilian Hirigoyen, herri kontseilariak.

Ezin etorriak: Peio Etcheleku (20:00 arte), Corinne Othatcegy (19:50tik goiti), Jean-Paul Eyherachar, Roger Barbier, Bernadette Remeau, Michel Duthilleul, herri kontseilariak

Ahalordeak: Corinne Othatcegy-k Yolande Huguenard-i (19:50tik goiti), Jean-Paul Eyherachar-ek Christian Devèze-ri, Roger Barbier-ek Maud Gastigard-i, Bernadette Remeau-k Robert Poulou-ri, Michel Duthilleul-ek Nathalie Aïçaguerre-ri.

– Saioko idazkariaren izendapena.

Biltzarkideek aho batez, Isabelle AYERBE hautatu dute saioko idazkari izateko.

40 – Oihanburu bideko lur sail baten eskuratzea eta eremu publikora pasatzea (Magis jaunak aurkeztua).

Herri Biltzarrari proposatu dio:

- Thierry DUFOURD jaunaren jabegoko lur sailen zati baten eskuratzea (24 m²), THPan 32. zenbakiko leku erreserbatua duena, 4 350 €ko obrak eginez,
- Lur saila eremu publikora pasatzea.

Aho batez onartua.

41 – Tokiko Kudeaketarako Agentzia Publikoa: herri arteko errepide, sare eta antolamendu zerbitzuaren eskuhartzeentzako hitzarmena (Magis jaunak aurkezturik).

Biltzarkideei proposatu die Auzapezari baimena ematea APGL-rekin hitzarmen baten izenpetzeko laguntza tekniko eta administratibo batentzako, Behereko Plazako eskolen karrikarako antolamendu proiektu batentzako, azalpen ohar sintetikoan aurkeztua denaren arabera. Zerbitzu horren egun erdiko prezioa 280 €koa da, hots orotara 5 880 €.

Aho batez onartua.

42 – Ipar Euskal Herriko Turismo Bulegoa: Euskal Pass lankidetza hitzarmena (Irastorza jaunak aurkeztua).

Herri Biltzarrari eskatu dio Auzapezari baimena ematea, Ipar Euskal Herriko Turismo Bulegoaren eta Arnaga etxearen arteko lankidetza hitzarmen baten izenpetzeko, herriak 2019an abiatu zen ekintza horretan parte har dezan, honako xehetasunekin:

48 orduko edo 5 eguneko Euskal Pass eskaintza baten sortzea, Ipar Euskal Herriko hainbat turismo eta kulturguneetara sarbidea emango lukeena, tartean Arnagara:

5 eguneko Euskal Pass

14 urtetik gorako helduak..... 45 €

«Kids» 6 eta 13 urte artekoak..... 30 €

48 orduko Euskal Pass

14 urtetik gorako helduak..... 25 €

«Kids» 6 eta 13 urte artekoak..... 17 €

Ipar Euskal Herriko Turismo Bulegoak eskaintza horren bidez sartuko diren sariak hilabeteka itzuliko dizkio gune bakoitzari. Itzulera sariak ez dira aldatzen:

- 14 urtetik gorako helduak: 6 €
- «Kids» 6 eta 13 urte artekoak: 2,50 €

Aho batez onartua.

43 – Dirulaguntza (Auzapezak aurkeztua).

Herri Biltzarrari proposatu dio San Mixel Garikoitz kolegioari 1000€ko dirulaguntza baten ematea "Chœur des Colibris" abesbatzaren hezkuntza eta kultur proiektuaren laguntzeko.

Gehiengoz onartua.

Bozkan parte hartu ez dutenak: Lilian Hirigoyen.

44 – Arnagako 2021eko denboraldiko ikuskizunen tarifak (Irastorza jaunak aurkeztua).

Herri Biltzarrari proposatu dio Arnagako 2021 denboraldiko ikuskizunen tarifak honela finkatzea:

- Tarifa osoa: 15 €
- Tarifa txikia: (12-18 urte arteko gazteak, estudianteak, langabetuak, elbarrituak): 12 €
- Urririk: 12 urtetik behera.

Aho batez onartua.

45 – AGAZ(ALSH): 2021 denboraldiko «ados» proiektua eta tarifak (Aristizabal andereak aurkeztua).

Herri Biltzarrari proposatu dio 14/15 urte arteko nerabeen aldeko 2021eko udako animazio proiektua onartzea eta azalpen ohar sintetikoan ematen diren elementuen arabera tarifak finkatzea, eta Auzapez jaunari baimena ematea UFCVrekin emendakin baten izenpetzeko adin tarte horrentzako animatzaileak eskura ezartzeko.

Aho batez onartua.

Corinne Othatceguy anderea gelatik atera da.

46 – AGAZ: Herria, Pirinio Atlantikoetako Departamendua eta Errobi kolegioaren arteko hiruko hitzarmena (Aristizabal andereak aurkeztua).

Herri Biltzarrari proposatu dio hiruko hitzarmena onartzea, azalpen ohar sintetikoan agertzen den bezala, AGAZ-ak Errobi kolegioko lokalak oporretan erabil ditzan, hots 2021eko uztailaren 7tik 2021eko agorrilaren 14era, eta Auzapezari hitzarmen horren izenpetzeko baimena ematea.

Aho batez onartua.

47 – Frantziako Centre National du Livre (CNL) zentroari laguntza eskatzea (Aizpuru andereak aurkeztua).

Herri Biltzarrari proposatu dio, batetik 2021ean liburu berrien eskuratzeko 2400 €ko kopurua bozkatzea, datorren aurrekontu aldaketan txertatuko dena, eta bestetik CNLri dirulaguntza eskatzea, azalpen ohar sintetikoan ematen denaren arabera

Aho batez onartua.

48 – Hartzekoen artxibatzea (Aizpuru andereak aurkeztua).

Herri Biltzarrari eskatzen zaio 2018 eta 202 artean eskuratzekoak diren 973,65 €ko sarrerak hartzekoetan artxibatzea, azalpen ohar sintetikoan azaldu den bezala.

Aho batez onartua.

Peio Etcheleku jauna gelan sartu da.

49 – Aurrekontu nagusiaren 1. aldaketa erabakia (Aizpuru andereak aurkeztua).

Kontuan izanik 2021ko aurrekontuko lerro batzuk apalegiak direla, Herri Biltzarrari eskatzen zaio aurrekontu nagusiaren 1. aldaketa erabakia onartzea, azalpen ohar sintetikoan aurkeztua denaren arabera.

Gehiengoz onartua.

Kontra bozkatu dutenak: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Michel Duthilleul, Lilian Hirigoyen.

50 – ANTIC: Open Data esperimentazio hitzarmena (Lassus jaunak aurkeztua).

Herri Biltzarrari proposatu dio Auzapezari baimena ematea ANTIC elkartearekin esperimentazio hitzarmen baten izenpetzeko, azalpen ohar sintetikoan aurkeztua den bezala.

Aho batez onartua.

51 – Asteroko ostiraleko merkatua: araudiaren moldatzea (Cadepond-Larronde andereak aurkeztua).

Herri Biltzarrari proposatu dio ostiral goizetako merkatuaren araudia moldatzea azalpen ohar sintetikoan aurkeztua den bezala.

Aho batez onartua.

52 – Txakurrak Sindikatua: estatutuen moldatzea (Auzapezak aurkeztua).

Herri Biltzarrari eskatzen dio Txakurrak XBHAS-aren (SIVU) estatutuen aldaketa onartzea, azalpen ohar sintetikoan aurkeztua den bezala, Gixune herria sartu ondotik.

Aho batez onartua.

53 – Hilobi kontzesio baten itzultzea (Auzapezak aurkeztua).

Hilobi baten itzultze eskaera bat ukan eta, Herri Biltzarrari eskatu zaio 2018an eskuratu kontzesio horren eta bi lekuko hilobi baten itzultzeaz erabakitzea, azalpen ohar sintetikoan aurkeztua denaren arabera.

Aho batez onartua.

54 – Frantziako Oihanen Bulego Nazionalaren (ONF) eginkizunak: oihanen antolamendua eta berpizte plana (Goytino jaunak aurkeztua).

A – Oihanen antolamendu proiektua.

Herri Biltzarrari proposatu dio herriko oihanaren oihan antolamendu proiektuaren printzipioa onartzea, azalpen ohar sintetikoan aurkeztua den bezala, eta ONF kontratatzea horretarako laguntza tekniko eta administratiboa ekar dezan.

Aho batez onartua.

B – Berpizte plan proiektua: oihanen berritze atala.

Berpizte planaren baitan Frantziako estatuaren laguntzak eskuratzeko, Herri Biltzarrari proposatu dio, azalpen ohar sintetikoan aurkeztua den bezala, ekintza programa onestea, eta ONF kontratatzea herriko oihanen diagnostikoa egin dezan, eta berpizte planaren dirulaguntzen ukateko asistentzia tekniko eta administratiboa ekar dezan.

Aho batez onartua.

Auzapezaren erabakien komunikazioa (Auzapezak aurkeztua).

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2122-22 eta L.2122-23 artikuluen arabera, Auzapezak 2020ko ekainaren 11ko Herri Biltzarrak onartu dizkion eskumen delegazioen esparruan hartu dituen erabakien berri eman dio biltzarrari, azalpen ohar sintetikoan aurkeztua den bezala.

Solasgai guztiak landurik, saioa 21:40ean bukatu da.